

PRENTSA OHARRA

1

“Botere-guneak lekuz aldatu behar dira klima-erresilientzia bultzatu ahal izateko”

- *BC3k eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako #klimagune2014ren 5. ekitaldian klima-aldaketaren eta landa-ingurunearen arloko tokiko zein nazioarteko adituak bildu dira.*
- *Nekazaritza intentsiboaren edo abeltzaintzaren berotegi-efektuko gasen emisioen atzean dauden arrazoiak aztertu dituzte, eta tartean dauden eragileek gas horien emisioa murrizteko bete beharreko egitekoa sakondu nahi izan dute. Eragile horien artean daude: ingurumen-politika iraunkorrak diseinatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak; nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta baso-lanen arloko profesionalak; eta abar.*
- *Era berean, irtenbide eraginkorrak, zuzenak eta iraunkorrak lortzeko, alde guztien arteko komunikazioa erraztuko duten elkar-guneak topatzearen premia nabarmendu dute (baterako diseinua), eta politika irmoak eta kontsumo-ohiturak aldatu behar direla adierazi dute.*

[Bilbo, 2014ko abenduaren 5a]

Klima-aldaketa da gizateriak aurre egin behar duen ingurumen-erronkarik handiena. Klima-aldaketaren mehatxua neutralizatuko duen energia-eredu iraunkorra lortuko bada, **CO2ko emisio adierazgarriak sortzen dituzten jarduera-sektore guztiek premia hartu** beharko dituzte gaur egun sortzen dituzten emisioak murrizteko.

Sektore horien artean nekazaritza intentsiboa edo abeltzaintza daude. Zehazki, nekazaritzak eragiten ditu mundu-mailako emisioen % 14; abeltzaintzaren sektoreari emisioen % 31 dagozkio, eta ongarri sintetikoaren aplikazioari emisioen % 13. Arrazoi horiek tarteko, eta klima-ikerketaren arloko arreta hiri-ingurunean finkatu dela aintzat hartuta, landa-ingurunearen ezaugarriak eta berezitasunak sakondu nahi izan zituen atzo Bilbon BC3 klima-aldaketaren ikerketarako euskal zentroak.

“Landa-ingurunearen aukerak eta erronkak klima-aldaketaren aurrean” izenburupean, klima-aldaketari buruz urtero egiten den Klimaguneren 5. ekitaldian, ezagutza zientifikoan eta hura eragimenez aplikatzeko moduan oinarritzen diren politika publikoak diseinatzearen garrantziari buruzko eztabaida sustatu da adituen artean.

Ildo horretan, Klimagune 2014 ekitaldian parte hartu duen ospe handiko **Simon Anderson** doktoreak –Klima Aldaketaren Taldeko zuzendariak eta Eskoziako International Institute for

Environment and Development (IIED) koordinatzaileak– adierazi du garrantzi handikoa dela “botere-guneak lekuz aldatzea klima-erresilientziako prozesua bultzatu ahal izateko”. Limako 2 COP 20 gailurrean aditu gisa parte hartuko duen Anderson doktoreak Estatu zentralizatuen jarduna zehaztu beharra nabarmendu du: planifikatzeko betebeharra dute, baina tartean diren eragile guztien parte hartzea bilatu beharko dute, **erabakiak hartzeko prozesuetan aintzat har daitezten katearen maila guztietan aztertutako eta bildutako proposamen zehatzak.**

Ildo horretan, Eskozia gisako herrialdeetan abian jarri diren kontsulta publikoko prozesuen garrantzia ez ezik, National Adaptation Programmes of Action (NAPA) gisako nazioarteko ekimenen garrantzia ere adierazi du.

Bestalde, nekazaritza eta landa-garapeneko politketan aditu eta Nekazaritza eta Ingurumen Arriskuak Kudeatzeko Ikasketa eta Ikerketa Zentroaren (CEIGRAM) kide **Isabel Bardají** katedradunak aztertu ditu landa-inguruneko jarduerak eragindako klima-aldaketa arintzeko Europako Nekazaritza Politika Bateratuan (2014-2020) antolatutako tresna berriak.

Ildo horretan, Bardajík **gaur egun dauden oztopo politikoak** aipatu ditu (bikoiztasunak, erakundeen arteko komunikaziorik eza, eragimen gabezia, arriskuen baloraziorik eza,...), eta aditzera eman du kudeatzen dutenek “ez dutela, oro har, klima-sentsibiltate handirik”. Nolanahi ere, garrantzi handia eman dio berrikuntzari eta emaitzen transferentziari, baita jakintzaren arraila murriztera eta ikerketaren egileen eta nekazarien arteko komunikazioa hobetzera zuzentzen diren [European Innovation Partnerships \(EIP\)](#), gisako ekimenak abian jartzeari ere, aukera berriak sortzen dituzten heinean.

Arratsaldean Pilar Kaltzada kazetariak gidatu duen **eztabaidan** parte hartu dute: Simon Andersonek, Isabel Bardajík, Amaia Barredok (Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak), Basoa Fundazioko buru Jorge Askasibarrek eta Unai Pascualek (BC3n Ikerbasqueko irakasle ikertzaileak eta Klimagune 2014 ekimenaren koordinatzaileak). Pascual irakasleak aditzera eman du klima-aldaketaren aurka borrokatzeko **norabide bateratua ezarri** behar dela, batera diseinatu behar dela, eta elkarren ondoan egin behar dela lan. Bestalde, nabarmendu da klima-aldaketaren aurkako borrokan borondate politiko irmoa finkatu behar dela eta kontsumo-ohiturak aldatu ahal izateko baterako erantzukizunean kontzientziatu behar direla hiritarrak.

BC3, ikerketako bikaintasunaren aldeko apustu arrakastatsua

BC3 diziplina anitzeko ikerketa zentro bat da, guztira 12 herrialdeetatik datozen 35 ikertzailek baino gehiagok osatzen dutena. Anil Markandya Ikerbasqueko irakasleak gidatzen du zentroa. 2008an eratu zen Eusko Jaurlaritzaren BERC programaren esparruan, betiere Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Zentroaren helburu nagusia da klima-aldaketaren kausen eta ondorioen epe luzerako ikerketan bikaintasuna sustatzea.

BC3ko profesionalak egiten duten ikerketari esker eta profesional horiek parte hartzen duten lankidetzaren sare zientifikoen ikerketari esker, BC3 mundu-mailako erreferentzia gisa finkatu da ikerketaren arlo horretan. ICCG (International Center for Climate Governance) erakundeak klima-aldaketaren ekonomiaren eta politikaren arloan munduko bigarren *think tank* garrantzitsu izendatu berri du BC3, zentroaren emaitzen bikaintasuna aintzatetsita.